

Presoen aldeko
mobilizazio eguna

Giro beroan presoek eskubideen alde

Erantzun apala Iruñean

Eguzki gogorraren azpian, kontzentrazio ugari egin ziren Euskal Herriko herrietan

Ana Unanue / Iruñea. -Senideen deialdiak erantzun apala izan zuten Iruñeko zentroan eta piska bat nabarmenagoa inguruko auzoetan, batez ere ikastetxeetan. Denda eta taberna gutxi batzuek atek itxi zituzten eguerdian, baina gehienak normaltasunez aritu ziren.

Nafarroako Parlamentuan apenas nabaritu zen geldialdia, HBko ordezkariak ez baitzituzten CDN, IU eta EA kontzertatu elkarrekin zerbaitez egiteko. Hezkuntza Batzordeak, eguerdian bilduta zegoen bakarrak, ez zuen etenik egin. Patxi Zabaleta eta Xanti Kiroga, HBko parlamentarioak, Udaletxe plazako kontzentrazioan agertu ziren.

Udaletxearen aurrean ehundaka lagun elkartu ziren presoak Euskal Herriera ekar ditzaten eskatzeko. Ordu laurdeneko kontzentrazio isilaren ondoren Josema Mariñelarenak hartu zuen hitza, San Lorenzo elizako gose grebalarien izenean. Mariñelarenak esan zuenez, euskal herritar gehienek garbi daukate presoek Euskal Herriaren erantzun zuzena, baina agintariek ez diote jaramonik egiten sakabanaketa amaitzeko eskaerari. San Lorenzo elizako gose grebalariek ekainaren 6an hasi zuten itxialdia, eta kexu agertu dira Nafarroako Elizak eta komunikabide eta talde politiko gehienek «ezkutatu» egin dutelako presoek sakabanaketaren aurkako baraualdia.

Txantrean 75 komertzio itxi zuten, eta 40 irekita gelditu ziren. Datu hori oso baikoza zela adierazi zuten antolatzaileek. Auzo horretan, gainera autobus geltokietako markesinak espeteak balira bezala moztu zituzten. X

Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz, hainbat lagun bildu ziren eguzki bortitz bati aurre egiteko atzo, Euskal Herri osoko hiri eta herrietan. 12etan hasita, ordu laurdenez, itxita izan zituzten herritarrek hainbat komertzio eta taberna. Senideek deitutako geldialdiak hainbat lagun bildu zituen aldarrikapen bakarren inguruan.



Iruñeko Udaletxeko plazan egindako kontzentrazioan ere jende ugari bildu zen.

JOXE LACALLE

A.Iartzaga / I. Uriarte / Donostia/Bilbo

PRESOEN aldeko mobilizazioek Euskal Herriko hiriburu zein herrietan erantzun ezberdina ikusita, «arrakastatutzat» jotzen atzo Senideek elkartekoek jendeak euren ordu laurdeneko geldialdiari emandako erantzuna.

Hainbat izan ziren atzo Euskal presoak Euskal Herriera aldarrikapenaren inguruan bildu ziren herritarrek, EGUNKARIAK zuzenean jaso ahal izan zuenez. Donostian, esaterako, erantzun ezberdinak izan zituen oso Senideen elkartenak. Parte Zaharrean eta Egan, denda eta taberna gehienak geldialdiarekin bat egin zuten, eta erdialdeko eta Groseko komertzioetan gutxi izan ziren bat egin zutenak.

Senideek zein LAB sindikatuen deitu kontzentrazioetan, ordea, jende askok parte hartu zuen. Ia 40 graduko tenperaturaren udalaxe aurrean Senideek deitutako bilkuran 500 lagun inguru bildu ziren. Kontzentrazioa egin ostean, izerdi patsetan giza katea egin zen erdialdeko kaleetan barreran. LABek deituta Askatasunaren Hiribidean egin kontzentrazioan 50 lagun baino gehiago bildu ziren.

Goierriko herri gehienek ere erantzun zabal eman zioten Senideen geldialdiari. Beasain eta Ordizian —eskualdeko bi herri handienetan—, banketxe, taberna eta denda gehienek euren atek itxi zituzten hamabietan, ordu laurdenez.

Beasaingo geltokian, Renfe enpresako tren geltokian ere geldialdiak iraun zuen bitartean. LAB sindikatuko egoitzaren aurrean, sindikatu horretako zenbait kide bildu ziren euskal presoak Euskal Herriratzeari erantzun zuzena eskatzeko. Beasainen bertan, Zubimuzo enparantzan, 50 lagun inguru bildu ziren Euskaldunak direlako euskal presoak Euskal Herri zioen pankartaren atzetan, Goierriko euskal presoaren argazkiak hartuta.

Beste horrenbeste lagun bildu ziren Ordizian ere, herriko enparantzan, Euskal presoak Euskal Herri zioen pankartarekin. Ordizian ere, geldialdiak iraun zuten ordu laurden horretan ban-



Bizkaiko Diputazioaren aurrean Bilbon egindako kontzentrazioa.

XOUSA SIMAL

ketxe, denda eta taberna gehienak itxita egon ziren. Lazkaoan, berriz, 100 lagun inguru bildu ziren herriko plazan.

Kontzentrazioa Bilboko PPren egoitzaren aurrean • Eguerdikoa hamabietan puntuan, LAB eta Senideak elkarrekin deituta, ehundaka pertsona bildu ziren Bilboko Plaza Eliptikoan. Sindikatuko talde bat PPren egoitza dagoen atarian bildu zuten baten ostean, jende kopururik handiena plazako lorategien ondoan jarri zen pankarta eta megafoniarekin. Ordu laurden beranduago adar hots ozen batez kontzentrazioa amaitu zela ohartarazi zuten. Hantxe eman zuten ordu

laurden bat, PPri oroitartzeko ez datozela bat presoek sakabanaketarekin. Bildutako artean ziren, besteak beste, Senideak elkarteko Iñaki Reta eta Gurutze Olagorta, AABetako Aitor Jugo eta LAB sindikatuko Txomin Lorca eta Iñaki Alkorta zeuden.

Amaieran, Agustin Figal Amnistiaren Aldeko Batzordeetako Bizkaiko koordinatzaileak esan zuen Aznarren gobernuak ez duela betetzen euskal gizartearen gehiengoak eskatzen duena, hots «euskal preso politikoei ukatzen zaizkien oinarriko eskubideak errespetatzea».

Bilboko Xabier Etxebarria presoaren egoera PPren adibide garbia dela esan zuen. «Egon behar

zuen Euskal Herriari gaitasun larria duelako, baina ez dute ekartzen Euskal Herriari, Coruñan daukate, torturatzen ari dira», gaineratu zuen. Oroitarazi zuenez, ez da kasu bakarra, gaiso diren beste preso batzuek ere sakabanatuta segitzen dutelako.

AABen koordinatzaileak zuzenki zuzendutako erantzunak aurrean sartu zirela esan zuen. AABen koordinatzaileak zuzenki zuzendutako erantzunak aurrean sartu zirela esan zuen.

Kontzentrazio hori garatu bitartean, ehun bat metro beherrago Bizkaiko Diputazioko jauregi aurrean pertsona multzo zabal batek erreindikazio berari eusten zion. Alde Zaharrean eta beste auzo batzutan ere antzekoak izan ziren.

II. UDAKO KIROL ESKOLA

OÑATIN, 1998ko uztailearen 7tik 10era

IKASTAROAK

1.- Kirolarietzat: -TENIS
-ERRUGBIA
-PILOTA

2.- KIROL MUNDUKO PROFESIOALENTZAT: (irakasleak, monitorea, entrenatzaileak)

-AEROBIKA
-KIROL ALTERNATIBOAK
-KIROL EGOKITUAK

PREZIOA: Deba Bailarakoentzat: 2.500 pzta.
Gainerakoentzat: 3.500 pzta.

HITZALDIAK

1.- KIROL MEDIKUNTZA: -TAPPING
-KIROL LESIOEN PREBENTZIOA
-KIROL ELIKADURA

2.- PRESTAKUNTZA FISIKOA: -ABIADURAREN ENTRENAMENDUA
-ERRRESISTENTZIAREN ENTRENAMENDUA
-INDARRAREN ENTRENAMENDUA

PREZIOA: Deba Bailarakoentzatz: 500 pzta.
Gainontzekoentzatz: 1.000 pzta.

KIROLA EUSKARAZ JARDUNALDIAK

GAIA: HIZKUNTZAREN TRATAMENDUA KIROL MUNDUAN

Irakasleentzatz, Euskara eta Kirol teknikarietatzatz.

PREZIOA: Bailarakoentzatz 2.000 pzta.
Gainerakoentzatz: 2.500 pzta.

IZENEMATEKO EPEA: Ekainaren 8tik uztailearen 2ra

Antolatzailea: DEBA BAILARAKO EUSKARA ETA KIROL ZERBITZUAK

KIROLA EUSKARAZ PROGRAMA

Informazio edo/eta izenematea: 943 79 55 87

Oñatiko Kiroldegia: 943 71 63 75 / Faxa: 943 71 60 36